

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3375

139/2011 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako Akordioa onartzen duena. Akordio horren arabera, gehitu egiten dira Estatuko Administrazio Orokorrak, maiatzaren 8ko 812/1985 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari enplegu-erregulazioko espedienteen arloan Eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuak.

Dekretu honen xedea bikoitza da: Dekretu honen xedea bikoitza da: alde batetik, ekainaren 24ko 899/2011 Errege Dekretuaren bidez Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartu zuen akordioa onestea eta argitaratzeko agintzea; beste aldetik, Dekretuaren beste xedea eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuak atxikitzea da. Akordio horren arabera, maiatzaren 8ko 812/1985 Errege Dekretuaren bidez enplegu-erregulazioko espediente arloan eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuak gehitzen dira, eginkizun eta zerbitzu berriak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatuz. Hori guztia, gainera, irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez Transferentzien Bitariko Batzordeak onartutako Akordioaren 2. artikulua arabera eta errege-dekretu horretan agintzen diren formalizazio-izapideak betetze aldera.

Horregatik, Herrizaingoko sailburuak proposatuta, bera baita Transferentzien Bitariko Batzordeko presidenteordea, lehendakariak onartu ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an egin dako bilkuran gai hori aztertu eta onartu zela ikusita, honako hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Transferentzien Bitariko Batzordearen 2011ko ekainaren 22ko Akordioa onartzea, ekainaren 24ko 899/2011 Errege Dekretuan xedatu bezala. Akordio horren arabera, gehitu egiten dira Estatuko Administrazio Orokorrak, maiatzaren 8ko 812/1985 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari enplegu-erregulazioko espedienteen arloan eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuak.

Akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea agintzen da, dekretu honen eranskin gisa.

**2. artikulua.**– Eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gai horretan eskumena daukan sailari atxikiko zaizkio.

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3375

DECRETO 139/2011, de 28 de junio, por el que se aprueba el Acuerdo de 22 de junio de 2011 de la Comisión Mixta de Transferencias sobre ampliación de las funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 812/1985, de 8 de mayo, en materia de expedientes de regulación de empleo.

El presente Decreto tiene un doble objeto: de una parte, aprobar el Acuerdo de la sesión de 22 de junio de 2011 del Pleno de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por el Real Decreto 899/2011 de 24 de junio, así como disponer su publicación; por otro lado, este Decreto procede a adscribir los servicios y las funciones transferidas en el citado Acuerdo. En virtud de dicho Acuerdo se procede a la ampliación de las funciones y servicios traspasados por el Real Decreto 812/1985, de 8 de mayo, a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de expedientes de regulación de empleo. Todo ello de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 2 del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, y a los efectos del cumplimiento de los trámites de formalización requeridos en el mismo.

Por todo lo cual, a propuesta del Consejero de Interior en su calidad de Vicepresidente de la Comisión Mixta de Transferencias, previa aprobación de la Presidencia, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 28 de junio de 2011,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Aprobar el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 22 de junio de 2011 en los términos establecidos por el Real Decreto 899/2011, de 24 de junio. A través de dicho Acuerdo se procede a la ampliación de funciones y servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 812/1985, de 8 de mayo, en materia de expedientes de regulación de empleo.

Así mismo, se ordena su publicación íntegra en el Boletín Oficial del País Vasco como anexo al presente Decreto.

**Artículo 2.**– Las funciones y los servicios transferidos quedarán adscritos al departamento competente en la materia.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 28an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburu eta Transferentzien Bitariko batzordeko presidenteordea,  
RODOLFO ARES TABOADA.

ERANSKINA, EKAINAREN 28KO 139/2011  
DEKRETUARENA

899/2011 ERREGE DEKRETUA, EKAINAREN 24KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ARLOAN ESKUALDATU ZITZAIZKION ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN EGINKIZUNAK ETA ZERBITZUAK GEHITZEARI BURUZKOA

Konstituzioak 149.1.7 artikuluan ezartzen du Estatuak duela laneko legeriaren arloko eskumen eskusiboa, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek gauzatzea hura.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua arabera, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio laneko legeriaren arloko Estatu-ko legeak gauzatzea. Horretarako, bere gain hartuko ditu lan-harremanei dagokienez Estatuak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak; bere gain hartuko du, orobat, Estatuak laneko legeria gauzatzeko dituen zerbitzuak haren goi-ikuskaritzaekin batera antolatze-ko, zuzentze-ko eta zaintze-ko ahalmena. Zerbitzu horiek antolatu, zuzendu eta zaintzerakoan, lan-baldintzak gizartearen garapen- eta aurrerapen-mailarekin bat etor daitezten ahaleginduko da, eta langileek kualifikazioa eta prestakuntza integrala izan dezaten eragingo du.

Halaber, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12.7 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren sektore publikoaren arloko Estatu-ko legeria Autonomia Erkidegoaren lurralde-barrutian gauzatzea. Egoki den kasu eta jardueren arabera izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren esku hartzea.

Maiatzaren 8ko 812/1985 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion enplegu-erregulazio-ko espedienteen arloan Estatu-ko Administrazioak zituen zerbitzuak.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de junio de 2011.

El Lehendakari,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Interior y Vicepresidente de la Comisión Mixta de Transferencias,  
RODOLFO ARES TABOADA.

ANEXO AL DECRETO 139/2011, DE 28 DE JUNIO REAL DECRETO 899/2011, DE 24 DE JUNIO, SOBRE AMPLIACIÓN DE LAS FUNCIONES Y SERVICIOS DE LA ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO TRASPASADOS A LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO EN MATERIA DE EXPEDIENTES DE REGULACIÓN DE EMPLEO

La Constitución, en el artículo 149.1.7.<sup>a</sup>, dispone que el Estado tiene competencia exclusiva en materia de legislación laboral, sin perjuicio de su ejecución por los órganos de las Comunidades Autónomas.

Por su parte, el artículo 12.2 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en materia de legislación laboral, asumiendo las facultades y competencias que en este terreno ostenta actualmente el Estado respecto a las relaciones laborales; también la facultad de organizar, dirigir y tutelar, con la Alta Inspección del Estado, los servicios de éste, para la ejecución de la legislación laboral, procurando que las condiciones de trabajo se adecuen al nivel de desarrollo y progreso social, promoviendo la cualificación de los trabajadores y su formación integral.

Asimismo, el artículo 12.7 del Estatuto de Autonomía dispone que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en materia de sector público estatal en el ámbito de la Comunidad Autónoma, la que tendrá la participación en los casos y actividades que proceda.

Mediante el Real Decreto 812/1985, de 8 de mayo, fueron traspasados los servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de expedientes de regulación de empleo.

Finalmente, la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y el Real

2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez gauzatu behar den Estatuko Administrazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Bitariko Batzordeak, 2011ko ekainaren 22ko bilkuran hartutako akordio baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari enplegu-erregulazioko espedienteen arloan eskualdatuta zeuden Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak gehitzea erabaki zuen. Akordio hori errealtatean gauzatu bada, ordea, ezinbestekoa izango da Gobernuak onarpena ematea, errege-dekretu bidez.

Hori dela-eta, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko, Lurralde Politika eta Administrazio Publikoko ministroaren proposamenez eta Ministroen Kontseiluak 2011ko ekainaren 24ko bileran eztabai-datu ondoren,

XEDATZEN DUT:

**1. artikulua.**– Onartu egiten da Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean adierazten den Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22ko osoko bilkuran hartutako akordioa, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoari enplegu-erregulazioko espedienteen arloan eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak gehitzea. Errege-dekretu honen eranskin gisa dator transkribatuta akordioa.

**2. artikulua.**– Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoari gehitzen zaizkio Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioan agertzen diren eginkizun eta zerbitzuak, bertan zehazten diren moduan eta baldintzetan.

**3. artikulua.**– Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioan adierazitako egunetik aurrera hartuko du indarra eginkizunen eta zerbitzuen gehitzeak.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, establecen la forma y el procedimiento a que han de ajustarse los trasposos de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco adoptó, en su reunión del día 22 de junio de 2011, el acuerdo de ampliación de las funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de expedientes de regulación de empleo, cuya virtualidad práctica exige su aprobación por el Gobierno mediante Real Decreto.

En su virtud, en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, a propuesta del Ministro de Política Territorial y Administración Pública y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 24 de junio de 2011,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, de ampliación de las funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de expedientes de regulación de empleo, adoptado por el Pleno de dicha Comisión en su sesión del 22 de junio de 2011, y que se transcribe como anexo de este Real Decreto.

**Artículo 2.**– En consecuencia, quedan ampliados a la Comunidad Autónoma del País Vasco las funciones y servicios que figuran en el acuerdo de la Comisión Mixta, en los términos y condiciones que allí se especifican.

**Artículo 3.**– La ampliación será efectiva a partir de la fecha señalada en el acuerdo de la Comisión Mixta.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

Este Real Decreto será publicado simultáneamente en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial del País Vasco, adquiriendo vigencia el día siguiente al de su publicación.

ERANSKINA, EKAINAREN 24KO 899/2011 ERREGE  
DEKRETUARENA  
TRANSFERENTZIEEN BITARIKO BATZORDEAREN  
2011KO EKAINAREN 22KO AKORDIOA

Antonio López Soto eta Juan Ignacio Urresola Arechabala jaunek, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Transferentzien Bitariko Batzordeko idazkariek, honako hau

ZIURTATZEN DUTE:

Transferentzien Bitariko Batzordeak, 2011ko ekainaren 22an egindako Osoko Bilkuran, akordio bat hartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoari enplegu-erregulazioko espedienteen arloan eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak gehitzeko, ondoren zehazten den moduan:

A) Gehitzearen oinarri diren konstituzioko eta estatutuko arauak.

Konstituzioak 149.1.7 artikuluan ezartzen du Estatuak duela laneko legeriaren arloko eskumen eskusiboa, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek gauzatzea hura.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12.2 artikuluan arabera, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio laneko legeriaren arloko Estatuko legeak gauzatzea. Horretarako, bere gain hartuko ditu lan-harremanei dagokienez Estatuak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak; bere gain hartuko du, orobat, Estatuak laneko legeria gauzatzeko dituen zerbitzuak haren goi-ikuskaritzarekin batera antolatzeko, zuzentzeko eta zaintzeko ahalmena. Zerbitzu horiek antolatu, zuzendu eta zaintzerakoan, lan-baldintzak gizartearen garapen- eta aurrerapen-mailarekin bat etor daitezten ahaleginduko da, eta langileek kualifikazioa eta prestakuntza integrala izan dezaten eragingo du.

Halaber, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12.7 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren sektore publikoaren arloko Estatuko legeria Autonomia Erkidegoaren lurralde-barrutian gauzatzea. Egoki den kasu eta jardueren arabera izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren esku hartzea.

Maiatzaren 8ko 812/1985 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion enplegu-erregulazioko espedienteen arloan Estatuko Administrazioak zituen zerbitzuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dute Estatuaren Adminis-

ANEXO AL REAL DECRETO 899/2011, DE 24 DE  
JUNIO  
ACUERDO DE LA COMISIÓN MIXTA DE  
TRANSFERENCIAS DE 22 DE JUNIO DE 2011

D. Antonio López Soto y D. Juan Ignacio Urresola Arechabala, Secretarios de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía del País Vasco,

CERTIFICAN:

Que en el Pleno de la Comisión Mixta celebrado el día 22 de junio de 2011 se adoptó un Acuerdo de ampliación de las funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de expedientes de regulación de empleo, en los términos que a continuación se expresan:

A) Normas constitucionales y estatutarias en las que se ampara la ampliación.

La Constitución, en el artículo 149.1.7.<sup>a</sup>, dispone que el Estado tiene competencia exclusiva en materia de legislación laboral, sin perjuicio de su ejecución por los órganos de las Comunidades Autónomas.

Por su parte, el artículo 12.2 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en materia de legislación laboral, asumiendo las facultades y competencias que en este terreno ostenta actualmente el Estado respecto a las relaciones laborales; también la facultad de organizar, dirigir y tutelar, con la Alta Inspección del Estado, los servicios de éste, para la ejecución de la legislación laboral, procurando que las condiciones de trabajo se adecuen al nivel de desarrollo y progreso social, promoviendo la cualificación de los trabajadores y su formación integral.

Asimismo, el artículo 12.7 del Estatuto de Autonomía dispone que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en materia de sector público estatal en el ámbito de la Comunidad Autónoma, la que tendrá la participación en los casos y actividades que proceda.

Mediante el Real Decreto 812/1985, de 8 de mayo, fueron traspasados los servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de expedientes de regulación de empleo.

Finalmente, la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y el Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, establecen

trazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko modua eta prozedura.

Konstituzioan eta Estatutuan ezarritako horiek oinarri direla, gehitu egingo dira enplegu-erregulazioko espedienteen arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak.

B) Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak.

Laneko legeria enplegu-erregulazioko espedienteen arloan gauzatu dezan, gehitu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartuta dituen eginkizunak. Honako hauek gehitzen dira:

a) Enplegu-erregulazioko espedienteen instrukzioa egitea eta horiek ebaztea, hasierako aldiaren nahiz errekurtsio-bidean. Enplegu-erregulazioko espediente horien bidez, lanaldi-murrizketak egiteko edo lan-harremanak eteteko nahiz azkentzeko baimena emango da, betiere ekonomia, teknika, antolakuntza, produktzioa edo ezinbestea oinarri duten arazoak tarteko badira. Enplegu-erregulazioko espediente horiek hauei eragingo die:

1) Enplegu-erregulazioko espedientepean dauden eta Nazioko Gobernuak erabakitako kreditu berezietan edo abalekin zerikusirik duten enpresei edo lantokiari.

2) Estatuaren Ondarekoak diren enpresei.

3) 47/2003 Legearen eta 6/1997 Legearen arabera, estatuaren sozietate diren enpresei. Hauek dira lege horiek: 47/2003 Legea, azaroaren 26koa, Aurrekontu Lege Orokorrari buruzkoa, eta 6/1997 Legea, apirilaren 14koa, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzkoa.

Enpresa horiek, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan izan beharko dituzte beren lantoki guztiak eta plantillako langile guztiak, edo, enpresaren lantoki batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo badaude, espedienteen aurkeztutako eskabideak lurralde horretan kokatutako lantokiari edo langilei baino ezin izango die eragin.

b) Hori horrela izanda ere, Autonomia Erkidegoan lan-arloko eskumena duen organoak aurretiaz txostena eskatu beharko dio, nahitaez, Estatuko Administrazioari. Txostena ez da loteslea izango.

c) Enplegu-erregulazioko prozedura batek, a) idatzi-zatian zehaztutako enpresei buruzkoa izanik, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan eta kanpoan kokatutako lantokiari edo langilei eragiten badie, arau hauek aplikatuko dira:

la forma y el procedimiento a que han de ajustarse los trasposos de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Sobre la base de estas previsiones constitucionales y estatutarias, procede realizar la ampliación de las funciones y servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco materia de expedientes de regulación de empleo.

B) Funciones y servicios de la Administración del Estado que asume la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se amplían las funciones de ejecución de la legislación laboral en materia de expedientes de regulación de empleo asumidas por la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su ámbito territorial, con aquellas relativas a:

a) La instrucción y resolución, en primera instancia y en vía de recurso, de los procedimientos de regulación de empleo para autorizar reducciones de jornada, suspensiones y extinciones de las relaciones laborales fundadas en causas económicas, técnicas, organizativas, de producción y de fuerza mayor, que afecten a:

1) Empresas o centros de trabajo afectados por expedientes de regulación de empleo que estén relacionados con créditos extraordinarios o avales acordados por el Gobierno de la Nación.

2) Empresas pertenecientes al Patrimonio del Estado.

3) Empresas que tengan la condición de sociedades estatales de acuerdo con la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria o con la Ley 6/1997, de 14 de abril, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado.

Siempre que estas empresas tengan la totalidad de los centros de trabajo y trabajadores de su plantilla dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco o cuando, existiendo centros de la empresa situados fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, la solicitud deducida en el expediente afecte tan sólo a los centros de trabajo o trabajadores radicados en dicho ámbito.

b) No obstante lo anterior, el órgano laboral competente de la Comunidad Autónoma deberá recabar preceptivamente informe previo de la Administración del Estado. El informe no tendrá carácter vinculante.

c) Cuando el procedimiento de regulación de empleo concerniente a empresas detalladas en el apartado a). de este apartado afecte a centros de trabajo o trabajadores radicados dentro y fuera del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se aplicarán las reglas siguientes:

1) Enpresako plantillaren 100eko 85, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean kokatuta badago eta espedienteak plantilla horretako langileei eragiten badie, Autonomia Erkidegoan lan-arloko eskumena duen organoari egokituko zaizkio, harik eta prozeduran ebazpena emateko unea iritsi arte, prozedura bideratu eta haren instrukzioa egitea, baita Estatuko Administrazioari ebazpen-proposamen bat egitea ere. Estatuko Administrazioak ematen duen ebazpenak egin den proposamenaren edukiri jarraitzen ez badio, azaldu egin beharko da zer arrazoi izan diren horretarako oinarri.

2) Enplegu-erregulazioko espedienteak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako langileei eragiten ez badie edo Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen enpresako plantilla goiko idatzi-zatian zehazten den ehunekotik beherakoa bada, Estatuko Administrazioak egingo du espedientearen instrukzioa eta emango du ebazpena, hasierako aldiaren eta hurrengoetan. Estatuko Administrazioak txostena eskatuko die espedienteak eragindako langileak dituzten autonomia-erkidegoetan lan-arloko eskumena duten organoei.

C) Estatuko Administrazioaren esparruan gelditzen diren eginkizun eta zerbitzuak.

Estatuaren Administrazioari egokituko zaio, aurrerantzean ere, enplegu-erregulazioko espedienteen instrukzioa egitea eta ebazpena ematea, baldin espedientepeko enpresek nazioaren defentsarekin zuzeneko lotura badute edo baldin espedientepeko enpresek, lege-mailako arau baten bidez hala deklaraturik, nazioarentzat garrantzi estrategikoa duen produkzioa badute.

D) Estatuko Administrazio Orokorrek eta Euskal Autonomia-Erkidegoak batera eta era partekatuan berteko dituzten eginkizunak.

Euskal Autonomia Erkidegoak akordio honetako eginkizunak gauzatzeko behar den informazio estatistikoa eskuratuko dio Estatuko Administrazioari, dagoen metodologiari jarraituta, edo, hala egokitzen bada, Estatuko Administrazioak ezartzen duenari jarraituta; bermatu egin beharko da, nolahi ere, informazio hori koordinatuta eta integratuta geratzen dela Estatuko gainerako informazio estatistikoarekin. Estatuko Administrazioak, bere aldetik, gai horiei buruz prestatzen duen informazioa eskuratuko dio Euskal Autonomia Erkidegoari.

E) Eskualdaketan eragina izango duten aurrekontu-kredituak.

Zerbitzuek estatu mailan guztira duten kostua, 2011ko ekitaldian, 1. zerrendan agertzen da.

1) Si el 85 por 100, como mínimo, de la plantilla de la empresa radica en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y existen trabajadores afectados en la misma corresponderá al órgano laboral competente de la Comunidad Autónoma del País Vasco la ordenación e instrucción del procedimiento hasta el momento procedimental de resolver, en que formulará una propuesta de resolución a la Administración del Estado. En el supuesto de que la resolución que dicte la Administración del Estado se aparte del contenido de la propuesta señalada anteriormente se deberá especificar los motivos.

2) Cuando el expediente de regulación de empleo no afecte a trabajadores situados en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco o la plantilla de la empresa que radica en dicho ámbito territorial sea inferior al porcentaje señalado en el apartado 2 anterior, el expediente será instruido y resuelto en primera y sucesivas instancias por la Administración del Estado, que recabará informe de los órganos laborales competentes de las Comunidades Autónomas en que presten servicio los trabajadores afectados por el expediente.

C) Funciones y servicios que continúan correspondiendo a la Administración del Estado.

Continuarán siendo ejercidas por la Administración del Estado las funciones de instrucción y resolución de los expedientes de regulación de empleo que afecten a empresas relacionadas directamente con la Defensa Nacional y aquellas otras cuya producción sea declarada de importancia estratégica nacional mediante norma con rango de Ley.

D) Funciones concurrentes y compartidas entre la Administración del Estado y la Comunidad Autónoma.

La Comunidad Autónoma del País Vasco facilitará a la Administración del Estado información estadística sobre el ejercicio de las funciones objeto de este acuerdo, siguiendo la metodología existente o la que, en su caso, la Administración del Estado establezca, de forma que quede garantizada su coordinación e integración con el resto de la información estadística de ámbito estatal. Por su parte, la Administración del Estado facilitará a la Comunidad Autónoma del País Vasco la información elaborada sobre las mismas materias.

E) Créditos presupuestarios afectados por LA ampliación.

El coste total anual a nivel estatal asociado al presente traspaso del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2011 se recoge en la relación número 1.

F) Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

Akordio honen bidez onartu den zereginen eta zerbitzuen gehitzea 2011ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean.

Eta jasota gera dadin, ziurtapen hau ematen da.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 22an.

Transferentzien Bitariko Batzordeko idazkariak,  
ANTONIO LÓPEZ SOTO.  
JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA.

F) Fecha de efectividad del traspaso.

La ampliación de funciones y servicios objeto del presente acuerdo tendrá efectividad a partir del día 1 de julio de 2011.

Y para que conste se expide la presente certificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 2011.

Los Secretarios de la Comisión Mixta,  
ANTONIO LÓPEZ SOTO.  
JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA.

### 1. ZERRENDA

Zerbitzuek estatu mailan guztira duten kostua (2011ko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidurak)

	KAPITULUA	Eurotan
19.01.291M	1	22.012,82
19.01.291M	2	4.354,81
GUZTIRA		26.367,63

### RELACIÓN NÚMERO 1

*Coste total anual a nivel estatal (dotaciones ejercicio 2011)*

	CAPÍTULO	Euros
19.01.291M	1	22.012,82
19.01.291M	2	4.354,81
TOTAL		26.367,63